# Andoaingo Udalak 600.000 euroko partida egokitu du COVID19ak udalerrian eragin duen inpaktua minimizatzeko

- **Datorren ostegunean, maiatzaren 7an, argitaratuko da Andoaingo merkataritzarako, ostalaritzarako eta langile autonomoentzako laguntzei buruzko agindua**

- **Eskaerak aurkezteko epea 15 egunekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera**

- **Lainezek eta Izagirrek tokiko ehun ekonomikoari "likidezia ematearen" garrantzia azpimarratu dute**

Andoaingo alkate Maider Lainezek eta alkateorde Mari Jose Izagirrek jendaurrean aurkeztu dituzte COVID19k Andoainen eragindako inpaktua minimizatu nahi duen laguntza-aginduaren xehetasunak.

Deialdi honen helburua Andoaingo herritarren interes orokorra babestea da, establezimenduak nahitaez ixteak edo jarduera ekonomikoa nabarmen murrizteak eragindako autonomoei, merkataritzari, ostalaritzari eta antzekoei likidezia emanez, behin osasun-alarma amaituta, gure ekonomia ahalik eta lasterren berpizteko.

Deialdi honi aurre egiteko 600.000 euroko partida erabiliko dira. Laguntza horien zenbatekoa hiru diru-laguntza ildotan ezartzen da:

**1.LERROA**: Hilean establezimendu bakoitzeko 400 euroko zenbateko finkoa emango zaie Andoainen txikizkako merkataritza, ostalaritza eta antzeko jarduerak (adibidez, merkatuko postuak) egiten dituzten pertsona fisikoei edo juridikoei, jarduera gauzatzen duten establezimendua nahitaez itxi behar izan badute.

Salbuespen gisa, baldintza hauek betetzen dituzten establezimenduen titularrek ere laguntza ekonomikoa eskatzeko eskubidea izango dute: era partzialean itxita edo bakarrik larrialdiei erantzuteko irekita egon diren gozogintzako produktuen eta gozokien saltokiak, optikak eta fisioterapiako, podologiako, logopediako eta terapia okupazionaleko zentroak.

Baldintza nagusiak: Andoaingo udalerrian jendearentzako lokal irekia izatea, eta Ogasunaren eta Udalaren aurreko betebeharrak egunean izatea.

**2.LERROA**: Hilean 350 euroko zenbateko finkoa emango zaie Andoaingo langile autonomoei, lan elkartuko kooperatibetako bazkide direnei barne, jarduera utzi behar izan baldin badute, edo alarma egoeraren adierazpenaren ondorioz, aurreko seihilekoan batez beste fakturaturiko diru-sarreren %75eko murrizketa izan badute.

Baldintza nagusiak: Alarma egoera adierazpenaren ondorioz jarduera utzi behar izateagatik aparteko prestazioa aitortuta izatea, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan altan egotea eta helbide fiskala Andoainen izatea.

**3. LERROA**: Hilean 250 euroko zenbateko finkoa emango zaie Andoaingo langile autonomoei, lan elkartuko kooperatibetako bazkide direnei barne, alarma egoeraren adierazpenak eragindako diru-sarreren murrizketa konpentsatzeko.

Baldintza nagusiak: Jarduerarekin jarraitu baldin bada, 2020ko martxoko edo apirileko fakturazioa aurreko seihilekoan batez beste fakturaturikoaren aurrean gutxienez %50 murriztu izana. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan altan egotea eta helbide fiskala Andoainen izatea..

## ESKARIAK

Eskariak aurkezteko epea 15 egunekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskabideak, nahitaezko dokumentazio atxikiarekin batera, Erregistro Elektronikoaren bidez izapidetuko dira (sinadura digitaleko txartel batekin). Laguntzari buruzko zalantzak Andoaingo Udaleko Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Gazteria Sailaren bitartez erantzungo dira, 943 300 830 telefonoaren bidez (390 luzapenean).

## BETEBEHARRAK

Diru-laguntza jasotzen dutenen betebeharren artean dago enpresa-jarduerari gutxienez 6 hilabetez eustea, jarduerari berriro ekiteko eta/edo alarma-egoera kentzeko baimena eman eta hurrengo egunetik aurrera.

Laguntzak bateragarriak eta osagarriak dira beste hainbat erakundek susta ditzaketen beste laguntza batzuekin, baina oinarri hauen helburu berarekin sustatuko diren diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso direla jakinaraziko da.

**Andoainen, 2020ko apirilak 30**

# El Ayuntamiento de Andoain habilita una partida de 600.000€ para minimizar el impacto del COVID19 en el municipio

- **El próximo jueves, 7 de mayo, se publicará la orden de ayudas para el comercio, la hostelería y las personas trabajadoras autónomas de Andoain**

- **El plazo de presentación de solicitudes será de 15 días a partir del día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa**

- **Lainez e Izagirre destacan la importancia de "aportar liquidez" al tejido económico local**

La Alcaldesa de Andoain Maider Lainez y la teniente Alcalde Mari Jose Izagirre han presentado públicamente los detalles de la orden de ayuda que pretende minimizar el impacto provocado por el COVID19 en el municipio de Andoain.

El objeto de la presente convocatoria es proteger el interés general de la ciudadanía de Andoain, aportando liquidez a las personas autónomas y comercio, hostelería y afines que se hayan visto afectadas bien por el cierre obligatorio de establecimientos, o bien por una merma significativa en la actividad económica, para lograr que, una vez finalizada la alarma sanitaria, se produzca lo antes posible una reactivación de nuestra economía.

El importe para hacer frente a la presente convocatoria asciende a 600.000€. La cuantía de estas ayudas se establece en tres líneas de subvención:

**LÍNEA1**: Se concederá una cantidad fija de 400€ mensuales, por establecimiento, a personas físicas o jurídicas que desarrollen actividad comercial minorista, hostelera y afines (por ejemplo, puestos del mercado) en Andoain, cuando la actividad que desarrollen se haya visto afectada por el cierre obligatorio de establecimientos.

Como salvedad, se contemplan los siguientes supuestos, por los cuales los titulares de los establecimientos tendrán derecho a solicitar la ayuda económica: productos de confitería y golosinas; así como ópticas, centros de fisioterapia, podología, logopedia y terapia ocupacional que hayan estado parcialmente cerradas o para atender urgencias.

Principales condiciones: Disponer de local abierto al público en el término municipal de Andoain, hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con la Hacienda y el Ayuntamiento.

**<u>LINEA2</u>**: Se concederá una cantidad fija de 350€ mensuales a las personas trabajadoras autónomas de Andoain, incluidas las que sean socias de cooperativas de trabajo asociado, que se han visto obligadas a cesar en su actividad o, en su caso, para compensar la disminución de ingresos derivada de la declaración del estado de alarma, un 75% respecto del promedio facturado en el semestre anterior.

Principales condiciones: Tener reconocida la prestación extraordinaria por cese de actividad para las personas afectadas por la declaración del estado de alarma, alta en el Impuesto de Actividades Económicas y domicilio fiscal en Andoain.

**<u>LINEA3</u>**: Se concederá una cantidad fija de 250€ mensuales a las personas trabajadoras autónomas de Andoain, incluidas las que sean socias de cooperativas de trabajo asociado, para compensar la disminución de ingresos derivada de la declaración del estado de alarma.

Principales condiciones: En caso de mantener la actividad, haber reducido la facturación correspondiente a los meses de marzo o abril de 2020 en, al menos, un 50% respecto del promedio facturado en el semestre anterior. Alta en el Impuesto de Actividades Económicas y domicilio fiscal en Andoain.

## SOLICITUDES

El plazo de presentación de solicitudes será de 15 días a partir del día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Las solicitudes, junto a la documentación preceptiva, serán tramitadas a través del Registro electrónico (con una tarjeta con firma digital). Se atenderán las dudas relacionadas con la ayuda mediante el Departamento de Promoción Económica, Empleo y Juventud del Ayuntamiento de Andoain, a través del teléfono 943 300 830 (extensión 390).

## OBLIGACIONES

Entre las obligaciones de quienes reciban la subvención, está la de mantener la actividad empresarial durante 6 meses, como mínimo, a partir del día siguiente de la autorización de la reanudación de la actividad y/o levantamiento de la situación estado de alarma.

Las ayudas son compatibles y complementarias con otras que puedan impulsar diferentes instituciones, pero se comunicará la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos con el mismo fin o fundamento que el contenido en estas bases.

**Andoain, 30 de abril de 2020**